

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

NEKAZARITZA SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 11/2020 Foru Dekretua, martxoaren 24koa. Onestea ingurumen eta nekazaritzako eta klimako laguntzak eta nekazaritza ekologikorako laguntzak arautzen dituzten oinarrien aldaketa eta haien deialdia, EAEko Landa Garapeneko 2015-2020 Programaren barruan

Diputatuen Kontseiluaren ekainaren 21eko 46/2016 Foru Dekretuaren bidez, onespena eman zitzaien nekazaritza eta ingurumeneko eta klimako laguntzak eta nekazaritza ekologikoko laguntzak arautzen dituzten oinarriari eta laguntza lerro horren 2016rako deialdiari. Laguntza horiek 2015-2020 aldirako Euskal Autonomia Erkidegoko Landa Garapeneko Programaren barruan ematekoak dira, 1305/2013 zenbakiko erregelamenduak ezarritako mugen barruan, eta M10 "Nekazaritza eta ingurumeneko eta klimako neurriak" eta M11 "Nekazaritza ekologikoko neurriak" izenez identifikatzen dira.

Foru Gobernu Kontseiluaren apirilaren 4ko 20/2017 Foru Dekretuaren bidez, laguntza hauen oinarri arauetako batzuk aldatu ziren, eta 2017rako haien deialdia onetsi zen.

Foru Gobernu Kontseiluaren apirilaren 13ko 19/2018 Foru Dekretuaren bidez, berriz ere aldatu ziren laguntza lerro horren oinarri arauak, eta haren 2018rako deialdia onetsi zen.

Foru Gobernu Kontseiluaren martxoaren 21eko 16/2019 Foru Dekretuaren bidez, berriz ere aldatu ziren laguntza hauen oinarri arauak, eta 2019rako haien deialdia onetsi zen.

Nekazaritza Garapenerako Zerbitzuak, 2020ko urtarrilaren 28ko txosten batean, adierazi zuen ezen zenbait desadostasun ikusi direla laguntza hauen oinarri arautzaileetan ezarritako baldintzen eta Euskal Autonomia Erkidegoko Landa Garapeneko 2015-2020 Programan ezarritako baldintzen artean; hortaz, beharrezkoa da oinarriak aldatzea programari egokitzeko. Hain zuzen ere, beharrezkoa da baztertzea ekoizpen integratuko laguntzaren, nekazaritza ekologikora eraldatzeko laguntzaren eta nekazaritza ekologikoa mantentzeko laguntzaren onuradun izatetik ekoizpen integratuko edo, hala badagokio, ekoizpen ekologikoko laguntzak jasotzen dituzten pertsonak; hau da, fruta eta barazki ekoizleen erakundeentzat MABean ezarritako dauden eta ekoizpen integratuko edo, hala badagokio, ekoizpen ekologikoko laguntzak jasotzen dituzten pertsonak.

Bukatzeko, nola nahikoa kreditu dagoen Arabako Foru Aldundiaren 2020rako gastu aurrekontuan laguntza lerro horiek izapidetzeko, beharrezkoa da onestea urte horretarako deialdia.

Aginduzko txostenak ikusi dira, eta haien ondorioz, Nekazaritza Saileko foru diputatuak proposatuta eta Foru Gobernu Kontseiluak gaur bertan egindako bilkuran aztertu ondoren, hau

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Onespena ematea nekazaritza eta ingurumeneko eta klimako laguntzak eta nekazaritza ekologikoko laguntzak arautzen dituzten oinarriari (M10 eta M11 identifikazio kodeak dagozkie, hurrenez hurren), zeinak ezarritako baitaude ekainaren 21eko 46/2016 Foru Dekretuaren eranskinean, eta foru dekretu hori aldatu zuten apirilaren 4ko 20/2017 Foru Dekretuak, apirilaren 13ko 19/2018 Foru Dekretuak eta apirilaren 21eko 16/2019 Foru Dekretuak.

1. Aldatzea 3.2 a) apartatua, zeinaren bidez ezartzen baitira onuradunen betekizunak, pertsona juridikoen edo ustiategi elkartuen kasuan. Honela idatzita geratzen dira:

3.2 Pertsona juridikoak edo ustiategi elkartuak:

Ustiategi elkartuen kasuan, hala nola sozietate zibilak, titulartasun partekatua eta ondasun erkidego edo bestelako pertsona juridikoak:

a) Eskatzaileak aurreko 3.1 artikulua a), b), c) eta d) letrek pertsona fisikoei ezarritako betekizunak bete beharko ditu.

Sozietate zibilen, titulartasun partekatuen eta ondasun erkidegoen kasuan, kide guztiek gizarte segurantzarekiko betebeharrak betetzen dituztela ere egiaztatuko da.

b) Nortasun juridikorik gabeko sozietateek ezin dute honelako laguntzarik jaso; salbuespena: jaraunspen erkidegoek jaso dezakete, baldin eta ituna egin bada sei urtean gutxienez indibisio egoeran mantentzeko. Sozietate zibilei eta ondasun erkidegoei dagokienez, eskritura publiko bihurtutako agirien bidez osatuta egon beharko dira. Halaber, ezin dute honelako laguntzarik jaso makineria erabiltzeko kooperatibek (MEK).

c) Kooperatibek Euskal Autonomia Erkidegoko Kooperatiben Erregistroan izena emanda egon beharko dute.

Foru dekretu honen ondorioetarako, urriaren 4ko 35/2011 Legean xedatutakoarekin bat etorritik titulartasun konpartitua duten nekazaritzako ustiatuek sozietate zibilek duten tratamendua izango dute, baina ez dute bete behar eskritura publiko bidez eratuta egoteko betekizuna.

2. Beste gidoi bat eranstea I. eranskineko A.1.3.1 apartatuari, zeinetan arautzen baitira onuradunak M10.1 "Ekoizpen integratua" azpineurrian onargarriak izateko baldintzak. Honela idatzita geratzen da:

A.1.3. Onargarritasun baldintza espezifikoak

A.1.3.1. Onuradunenak:

- Euskal Autonomia Erkidegoko ekoizpen integratuko operadoreen erregistroan izena emanda egotea, ekoizleen atalean, laguntza eskatzeko epea amaitutakoan (konpromiso baztertzaila da).

- Arau tekniko espezifiko batek arautzen dituen ekoizpen joeretako baten ekoizlea izatea, ondoren aipatzen diren produkzio joera hauen artean:

- Mahatsondoa: Arabako Errioxa eta Txakolina

- Erremolatxa

- Patata

- Barazkiak: uraza, tomatea, piperra eta zerba

- Frutondoak: kiwia, sagarrondoak

- Esnetarako behiak

- Ustiatuek gutxienez azalera hau edukitzea: 1.000 m² ekoizpen integratuko barazkigintzarako edo 5.000 m² ekoizpen integratuko laboreetarako (konpromiso baztertzaila).

- Elkarte horiek legez eratuta egon behar dute.

- Ez izana fruta eta barazki ekoizleen erakundeentzat MABean ezarrita dauden ekoizpen integraturako laguntzen onuradunak.

3. Beste gidoi bat eranstea I. eranskineko B.1.3.1 apartatuari, zeinetan arautzen baitira onuradunak M11.1 "Nekazaritza ekologikora bihurtzea" azpineurrian onargarriak izateko baldintzak. Honela idatzita geratzen da:

B.1.3 Onargarritasuneko baldintza espezifikoak

B.1.3.1 Onuradunenak

- Nekazari aktiboak izatea, 1307/2013 (EB) Erregelamenduaren 9. artikulua adieran (Konpromiso baztertzalea).

- ENEEK Euskadiko Nekazaritza eta Elikadura Ekologikoaren Kontseiluko operadoreen erregistroan izena emanda egotea laguntza eskatzeko epea amaitzen den egunean (konpromiso baztertzalea).

- Ustategian gutxienez azalera hau edukitzea: 1.000 m² barazkigintza ekologikorako edo 5.000 m² labore ekologikoetarako (Konpromiso baztergarria).

- Ez izana fruta eta barazki ekoizleen erakundeentzat MABean ezarrita dauden ekoizpen ekologikorako laguntzen onuradunak.

4. Beste gidoi bat eranstea I. eranskineko B.2.3.1 apartatuari, zeinetan arautzen baitira onuradunen M11.2 "Nekazaritza ekologikoa mantentzea" azpineurrian onargarriak izateko baldintzak. Honela idatzita geratzen da:

B.2.3 Onargarritasuneko baldintza espezifikoak

B.2.3.1 Onuradunenak:

- Nekazari aktiboak izatea, 1307/2013 (EB) Erregelamenduaren 9. artikulua adieran (Konpromiso baztertzalea).

- ENEEK Euskadiko Nekazaritza eta Elikadura Ekologikoaren Kontseiluko operadoreen erregistroan izena emanda egotea laguntza eskatzeko epea amaitzen den egunean (konpromiso baztertzalea).

- Ustategian gutxienez azalera hau edukitzea: 1.000 m² barazkigintza ekologikorako edo 5.000 m² labore ekologikoetarako (Konpromiso baztergarria).

- Ez izana fruta eta barazki ekoizleen erakundeentzat MABean ezarrita dauden ekoizpen ekologikorako laguntzen onuradunak.

Bigarrena. Onespina ematea 2020ko laguntzen deialdiari, jarraian zehaztutakoaren arabera:

- Nekazaritza eta ingurumeneko eta klimako neurria (M10):

- Ekoizpen integratua (Euskal Autonomia Erkidegoko Landa Garapeneko 2015-2020ko Programaren M10.1.1 azpineuria).

- Bertako animalien arrazak kontserbatzea (Euskal Autonomia Erkidegoko Landa Garapeneko 2015-2020ko Programaren M10.1.3 azpineuria).

- Erlezaintza biodibertsitatea hobetzeko (Euskal Autonomia Erkidegoko Landa Garapeneko 2015-2020ko Programaren M10.1.4 azpineuria).

- Mendiko larreen aprobetxamendua kudeatzea (Euskal Autonomia Erkidegoko Landa Garapeneko 2015-2020ko Programaren M10.1.5 azpineuria).

- Nekazaritza ekologikoko neurria (M11):

- Nekazaritza ekologikora bihurtzea (Euskal Autonomia Erkidegoko Landa Garapeneko 2015-2020ko Programaren M11.1 azpineuria).

- Nekazaritza ekologikoa mantentzea (Euskal Autonomia Erkidegoko Landa Garapeneko 2015-2020ko Programaren M11.2 azpineuria).

- Epea eta lekua: Ordainketa bakarraren eskaerak aurkezteko ezarri den epean aurkeztuko dira laguntza eskaerak (2020ko otsailaren 1etik apirilaren 30era arte, biak barne). Eskaera Arabako Foru Aldundiko Nekazaritza Sailaren eskualdeko nekazaritza bulegoetatik edozeinetan aurkeztuko da, hargatik eragotzi gabe Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 16.4 artikuluan ezarritakoa.

Eskaera bakarra aurkezteko epe hori luzatuz gero, berez eta besterik gabe beste horrenbeste luzatuko da laguntza lerro hauetarako eskaerak aurkezteko epea.

– Kreditu erreserba: 1.130.240,00 euro, Arabako Foru Aldundiaren 2020rako gastuen aurrekontuko 40.1.01.42.01.479.00.03 “Nekazaritza eta ingurumen neurriak” izeneko partidaren kontura.

Kreditu hori zenbateko gehigarriekin handitu ahal izango da, Arabako Lurralde Historikoko Dirulaguntzei buruzko urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauak 21. artikuluan ezarritako mugen barruan, baita aurrekontu partidaren edozein arrazoiengatik gerta litekeen kreditu gehikuntzaren bidez ere. Zenbateko gehigarri horiek, gehienez ere, hasierako zenbateko erreserbatua adina izango dira.

- Laguntzaren gehieneko zenbatekoa, nekazaritza ustiategi bakoitzeko: 2020ko deialdi honetan 18.000,00 euro ezartzen dira gehienez, nekazaritza ustiategi bakoitzeko, eskatutako neurriak gorabehera. M10.1.3 “Bertako arrazak kontserbatzea” azpineurrirako laguntzak arraza bat baino gehiagotarako eskatuz gero, gehieneko kopurua gehitu ahal izango da, honela:

- 2.000,00 euroraino, eskatzen den bigarren arrazako animalientzat.

- Aurrekoaz gain, beste 1.000,00 euroraino, eskatzen den hirugarren arrazako animalientzat.

Finantzaketa: Deialdi honetako laguntzak ehuneko 75 finantzatu ahalko ditu LGENFek, baldin eta ez badira jotzen laguntza nazional gehigarritzat, bat etorritz 2015-2020 aldirako Euskal Autonomia Erkidegoko Landa Garapenerako Programan araututakoarekin.

Hirugarrena. Foru dekretu hau ALHAOn argitaratzen den egunean jarriko da indarrean.

Gasteiz, 2020ko martxoaren 24a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Nekazaritza Saileko foru diputatua

EDUARDO AGUINACO LÓPEZ DE SUSO

Nekazaritza zuzendaria

M^a ASUNCIÓN QUINTANA URIARTE